

Arau-hauste arinetan isunaren ordainketa ehuneko 30eko, kenketarekin eginda, alegazioak egiteko eskubidea galduko da (339/1990 LED-aren 77. 2 eta 67. 1 art-ak).

5.-Arau-hauste larrietan, estatuko administrazioari dagokion organoak gida-baimena edo gida-lizentziaren 1 eta 3 hilabete bitarteko etenaldia ezar dezake. Arau-hauste oso larrietan, berriz, etenaldi hori betiere ezarriko da (LED-aren 67.1 art.) Modu berean puntuak kenduko dira arau-hauste firmeak izatekotan.

Laudio. 2010ko martxoaren 31a.- Alkatea, JON KARLA MENOYO LLANO.

En las infracciones leves el pago de la multa con la reducción del 30 por ciento, implica la renuncia a formular alegaciones (artículos. 77.2 y 67.1 del RDL 339/1990).

5º.-Para las infracciones graves podrá imponerse además, por el órgano competente de la administración del estado, la sanción de suspensión del permiso o licencia de conducción por un plazo de entre 1 y 3 meses. En caso de infracciones muy graves, dicha suspensión se impondrá en todo caso (artículo 67.1). Del mismo modo se detraerán los puntos correspondientes a cada sanción una vez que estas sean firmes.

Llodio, 31 de marzo de 2010.- El Alcalde, JON KARLA MENOYO LLANO.

MATRIKULA MATRICULA	TITULARRA TITULAR	HAUTSITAKO ARAUA PRECEPTO INFRINGIDO	EGUNA FECHA	ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	BULETINA BOLETIN	ZENBATEKOA IMPORTE
0798-GDT	ESCALANTE CASPISTEGI, ASIER	94 2 G CIR	20/1/10	100000131	8175	90,00 €
4213-FZV	ZUBILLAGA GOITIA, IÑAKI	94 2 C CIR	2/2/10	100000296	10445	90,00 €
CA-7809-AT	CARRASCO BORGAS, FERNANDO	154 CIR	12/2/10	100000427	9799	90,00 €
0519-CKW	ORTEGA DE DIEGO, FERMIN	144 1 RGC	15/2/10	100000459	10969	90,00 €
1522-GNG	CUADRA QUINTANA IÑAKI, XABIER	144 1 RGC	18/2/10	100000488	11551	90,00 €
BI-7780-BT	RIO BERGANTIÑOS, ANTONIO JOSE	90 2 CIR	23/2/10	100000520	11367	60,00 €
1673-BLK	SANCHEZ PERALES, RAFAEL	90 2 CIR	23/2/10	100000525	11362	60,00 €
9528-CGJ	RUIZ RUIZ, JOSE	90 2 CIR	23/2/10	100000531	11556	60,00 €
BI-8589-CF	MARTIN GARCIA, FRANCISCO JAVIER	90 2 CIR	23/2/10	100000533	11558	60,00 €
BI-2986-CB	ISUSI BARBARA, IAGOBA	94 CIR	25/2/10	100000565	8196	90,00 €
VI-7305-U	GARCIA GONZALEZ, FELIX	90 2 CIR	26/2/10	100000586	11574	60,00 €
8707-CRV	MARIA FLORES FRANCISCO, JAVIER	90 2 CIR	27/2/10	100000591	11533	60,00 €
2978-BSP	MOSQUERA MANTEIGA, JOSE ANTONIO	90 2 CIR	27/2/10	100000608	11613	60,00 €
2202-BYP	GOMEZ ROMASANTA, JUAN JOSE	90 2 CIR	1/3/10	100000621	11599	60,00 €
4863-CBS	ETXEBARRIA DOMINGUEZ, FRANCISCO JAVIER	94 2 E CIR	16/3/10	100000720	11260	90,00 €

## LAUDIO

2386

### Euskara ikasteko diru-laguntzetarako deialdia eta onarperako oinarri arautzaileak. 2010 urtea.

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrean 2010eko martxoaren 31 egunean izandako ohiko bileran, euskara ikasteko laguntzak emateko deialdia eta euren onarperako oinarri arautzaileak onartu ziren.

Hartutako erabakiaren laugarren atalean jasotakoari jarraiki eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 52.1. artikuluan xedatutakoa betez argitara ematen dira, objetibotasun, lehia eta publizitatearen printzipioak bermatu daitezten.

Laudio, 2010eko martxoaren 31n.- Alkatea, JON KARLA MENOYO LLANO.

## OINARRIAK

### LEHENENGOA.- Helburua

Oinarri hauen helburua, Audio Udalak bere Euskara Arloaren bitartez euskara ikasteko norgehiagokako erregimenean ematen dituen diru-laguntzak arautzea da. Beka hauek euskara ikasteko egon litezkeen oztopo ekonomikoak saihesteko ematen dira, euskara delako, lege, Euskal Herriko jatorrizko hizkuntza eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubidekoa.

Deialdi honen bitartez, euskara ikasketetarako laguntzak emango dira, betiere, jarraian aipatzen diren kasuetako bat baldin bada:

1. Euskaltegi homologatuetan egindako euskara ikasketak, 2009ko irailaren 30etik 2010eko ekainaren 30era bitartean, biak barne. Ikastaro arruntak edo barnetegi izaerakoak izan daitezke.

2. Euskaltegi homologatuetan egindako udako euskara ikastaro trinkoak, 2010eko uztail, abuztu edota irailean. Ikastaro arruntak edo barnetegi izaerakoak izan daitezke.

## LLODIO

2386

### Convocatoria y bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el estudio de euskera. Año 2010.

En sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento de Llodio celebrada el 31 de marzo de 2010 se aprobaron la convocatoria de una serie de becas destinadas a fomentar el estudio del euskera, así como las bases que regulan su concesión.

En cumplimiento del cuarto de los acuerdos adoptados y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 52.1 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, se procede a su publicación para garantía de los principios de objetividad, concurrencia y publicidad.

Llodio, 31 de marzo de 2010.- El Alcalde, JON KARLA MENOYO LLANO.

## BASES

### PRIMERA.- Objeto

El objeto de las presentes bases es el regular en régimen de concurrencia competitiva el acceso a las ayudas económicas concedidas por el Ayuntamiento de Llodio a través de su Área de Euskara destinadas al estudio del euskera, por entenderse que las limitaciones económicas no pueden ser obstáculo para el aprendizaje de esta lengua, reconocida como lengua propia del País Vasco y de derecho para todos sus habitantes.

Por la presente convocatoria serán subvencionados aquellos cursos de euskera de cualquiera de las siguientes modalidades:

1. Cursos de euskera en euskaltegis homologados, en período comprendido entre el 30 de septiembre de 2009 y el 30 de junio de 2010, ambos incluidos, tanto en régimen normal como en internado.

2. Cursos de verano intensivos de euskera en euskaltegis homologados, en los meses de julio, agosto o septiembre de 2010, tanto en régimen normal como en internado.

3. Audio Udalak antolatutako aitiba-amamentzako ikastaro bereziak, 2010eko urtariletik eta ekainera bitartean.

Deialdi honen bitartez ez dira lagunduko ez urrutiko irakaskuntza ez eta multimedia sistemen bitarteko ikastaroak.

Diru-laguntzetarako hiru ikastaro multzo hauetako bakoitzak trataera berezitua izango dute, eta horietako bakoitzak berezko epeak, diru mugak eta erabakiak izango ditu.

**BIGARRENA.-** Aurrekontua eta beken zenbatekoa

Deialdi honen bitartez emandako diru-laguntzen kopuru osoek ezingo dituzte ekimen honetarako alde aurretik ikusitako aurrekontuak gainditu. Honako hauek dira:

a) 2009/10 ikasturteko eskaerarako, 36.000 euro.

b) 2010eko udako ikastaroetako eskaerarako, 5.900 euro.

c) Aitiba-amamentzako 2010eko ikastaroetako eskaerarako, 1.400 euro.

Deialdi honetan aurreikusitako aurrekontuak nahikoak izango ez balira, Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak eskumena du arazoa bideratzeko erabaki egokia hartzeko.

Deialdi honen ondorioz eratorritako 43.300 euroko gastu osoa Audio Udalaren 2010 urteko Aurrekontu Nagusien 0900-4210-48101 ("Euskara ikasteko beka") diru sailaren karguan egingo da.

**HIRUGARRENA.-** Onuradunak

Onuradunak Audio erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak izan daitezke, betiere, deialdi honetako bosgarren oinarri arautzailean azaltzen diren betekizun guzti-guztiak betetzen baldin baditu.

Kasuren batean eskatzailea Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. atalean edo Audio Udalaren Diru-laguntzen esleipena arautzen duen Ordenantzan laguntza horiek ezintasunerako zehazten diren egoeraren batean balego ezin izango du deialdi honen bitartez onurarik hartu.

**LAUGARRENA.-** Bekak erabakitze irizpideak

Diru-laguntzak erabakitze orduan gastu lagungarria hartuko da kontuan eta haren ehuneko 75 eskuratzeko eskubidea izango du, beka gisa, deialdi honetako onuraduna izateko eskakizun guztiak betetzen baldin baditu. Hala ere, euskara ikastaroaren hasiera egunean eskatzaileak hirurogei urte betetik baldin baditu edo aitiba-amamentzako ikastaro bereziko ikaslea bada, gastu lagungarriaren ehuneko 100 emango zaio, betiere, gainerako eskakizun guztiak betetzen baldin baditu.

Gastu lagungarritzat hartuko dira ikastaro arruntetako eta barne-tegietako matrikula gastuari dagozkionak. Ez dira, ordea, bidaiak, materialak, janari, lojamendua eta abarren gastuak lagunduko.

Edozein modutan ere, eskatzaile bakoitzeko, onartutako beka guztien batuketaren gehieneko kopurua 1.000 eurokoa izango da, nahiz eta ikastaro batzuen izan.

Eman beharreko sail bakoitzeko laguntza guztien baturak aurreikusitako kopuru osoak gaindituko balitu, beka era proportzionalen txikituko lirateke egokitu arte. Beken arteko banaketa proportzional hori atalka aplikatuko da, egingo da ikastaro motaren arabera.

Euskara ikastaroak laguntzeko beka, diru-laguntza kontzeptu gisa emango dira eta, ondorioz, bere ezaugarri guztiak hartuko dituzte tramitaterakoan. Hortaz, Araba Lurralde Historikoan Diru-laguntzen eta Transferentzien otsailaren 7ko 3/97 Diputazioaren Arauari, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari, Udalen Zerbitzuen Araudiari eta bestelako lege osagarriei lotuta, hala nola Diru-laguntzen Udal Ordenantza Arautzailea, egingo dira.

**BOSGARRENA.-** Bekak lortzeko baldintzak

Deialdi honen bitartez emango diren laguntzen onuraduna izateko honako betekizun hauek bete behar dira, halaber:

a) Euskara ikasteko ikastaro bat egina izatea, deialdi honetako lehenengo oinarrian aipatutako epeen barruan eta euskaltegi homologatu batean.

3. Cursos de euskera específicos para abuelas/os, entre enero y junio de 2010, organizados por el Ayuntamiento de Llodio.

Quedan expresamente excluidos de la presente convocatoria los cursos de aprendizaje a distancia o por sistemas multimedia.

Cada uno de estos tres grupos de cursos tendrá un tratamiento propio en lo concerniente a plazos, dotaciones económicas y resoluciones de las solicitudes.

**SEGUNDA.-** Disponibilidad presupuestaria y cuantía de las becas

Las cantidades finales resultantes de las resoluciones de esta convocatoria no podrán en ningún caso superar las previsiones presupuestarias y que son las siguientes:

a) 36.000 euros para solicitudes vinculadas al curso 2009/10.

b) 5.900 euros para solicitudes vinculadas a cursos de verano en 2010.

c) 1.400 euros para solicitudes vinculadas a cursos para abuelos y abuelas en 2010.

Si las cantidades presupuestadas no fuesen suficientes, corresponderá a la Junta Local de Gobierno la adopción de las medidas que estime oportunas.

El gasto total de 43.300 euros resultante de las diferentes modalidades de subvención, se hará con cargo a la partida 0900-4210-48101 ("Becas de euskara") del Presupuesto General del Ayuntamiento de Llodio de 2010.

**TERCERA.-** Beneficiarios/as

Podrán ser beneficiarios de esta convocatoria, todas aquellas personas físicas empadronadas en Audio / Llodio que cumplan con cada uno de los requisitos enumerados en la base quinta de esta convocatoria.

No podrán obtener la condición de beneficiario aquellas personas o entidades en las que concurra alguna de las circunstancias contempladas en el art. 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, Ley General de Subvenciones o en la Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones.

**CUARTA.-** Régimen de concesión de becas

Para la concesión de las ayudas se tendrá en cuenta el gasto subvencionable percibiéndose en concepto de beca el 75 por ciento del mismo, cuando se cumpla con todos los requisitos recogidos en esta convocatoria. Sin embargo, en el caso de que el solicitante tenga cumplidos los 60 años el día del inicio del curso o que haya realizado el curso específico para abuelos y abuelas, percibirá en concepto de beca el 100 por ciento del mismo siempre que se cumpla con el resto de los requisitos exigidos.

Se entenderá como gasto subvencionable el importe de la matrícula en los cursos normales e internados. No se tendrán en cuenta gastos como desplazamientos, material, manutención, alojamiento etc.

En cualquier modo, la suma de los importes a percibir nunca superará los 1.000 euros por solicitante, aunque correspondan a diferentes cursos.

En el caso de que la suma de todas las ayudas a conceder superase el importe máximo establecido, las cantidades serán prorrateadas hasta ajustarse a aquella cantidad prevista. El reparto proporcional de dichas becas se aplicará por grupos, en función del curso realizado.

Las becas concedidas por estudios de euskera tendrán carácter de subvención y, en consecuencia, estarán sujetas a la Norma Foral 3/97, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias en el Territorio Histórico de Álava, a la Ley General de Subvenciones 38/03, de 17 de noviembre, al Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales y a la legislación complementaria correspondiente así como a la Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones.

**QUINTA.-** Requisitos para concesión de beca

Los requisitos de obligado cumplimiento para ser beneficiario de las ayudas de esta convocatoria son las siguientes:

a) Haber realizado un curso de euskara dentro de los períodos recogidos en la base primera de esta convocatoria y en un euskaltegi homologado.

Arestian aipatutako ikastaro horietako bat emandako egutegi tarteetan bere osotasunean sartuko ez balitz, laguntza ematerakoan epe horren barruan dagoen egutegiko egun kopurua hartuko da kontuan eta horren arabera kalkulatu da laguntza. Edozein modutan ere, epe horretatik kanpo geratzen diren ikastaro-egunak geroko beste laguntza deialdi batera aurkeztu ahal izango dira.

b) Audio herrian erroldatuta egotea, gutxienez, ikastaroa hasten den eguna baino hiru hilabete lehenagotik eta epe hau etenik gabekoa izanda.

c) Gutxienez ikastaroko eskola-orduen ehuneko 85eko asistentzia izatea. Datu hau egiaztatzeko onartuko den agiri bakarra euskaltegi-zuzendariak egindakoa izango da.

d) Audio Udalak edo egiaztatzeko edo finantza kontrolerako eskumena duen edozein erakunde eskatzen duenean, egiaztatze jarduerak betetzeko prestutasuna izatea. Eskumena duten organoak nazionalak edo Europako Erkidegokoak izan daitezke eta aurrez aipatutako jarduerak egin ahal izateko behar den informazioa eman beharko zaie.

e) Bekak onartuko dituen erabaki proposamena egin baino lehen, egiaztatzea Gizarte Segurantzarekin eta Foru Aldundiarekin egunean dagoela ordainketetan.

f) Egiaztatzea beka eskatzailea egunean dagoela Audio Udalarekiko zerga-ordainketetan.

g) Udalar jakinaraztea euskara ikastaroa egiteko lortu edo eskatu dituen beste diru-laguntzak. Edozein kasutan ere, jasotako diru-laguntza kopuruen batuketak ezingo du inondik inora ikastaroaren gastu lagungarria gainditu.

h) Jasotako diru-laguntzen erabilera egiaztatuko duten agiri guztiak gordetzea, baita elektronikoa ere, egiaztatze eta kontrol jardueretarako erabil daitezkeelako.

SEIGARRENA.- Aurkezteko dokumentazioa

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. Eskabide-inprimaki normalizatua, datu guztiak beteta.

2. Ikastaroaren matrikula ordaindu izanaren agiria.

3. Euskaltegiko zuzendariaren ziurtagiri bat, ikaslearen datuak, ikastaroa eta asistentzia datuak bilduko dituena.

4. Zinpeko aitoren bat adieraziz euskara ikastaro berbererako gainerako erakunde publiko edo pribatuei eskatutako diru-laguntzak. Diru-laguntza eskaera horiek erabakitzen direnean, horren berri eman behar zaio Udalar ahalik eta azkarren egin beharreko laguntza egokitzenak bideratu ahal izateko.

5. Zinpeko aitoren bat adieraziz eskatzailea ez dagoela legez ezinduta laguntza publikoak eskuratzeko, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13 artikulua 2 eta 3 ataletan jasotakoaren arabera.

6. Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

Administrazioak bere esku dituen beste agiriak ez dira aurkeztu beharko, beti ere eskatutako prozeduraren amaiera epetik bost urte igaro ez direnean eta dokumentazioa aurkeztu zeneko data eta erakunde zehazten denean, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 23. artikulua zehazten duenari jarraituta. Iraungipen data duten dokumentuak (zerga ordainketetan egunean izatea, e.a.) aurreikuspen honetatik kanpo geratzen dira.

ZAZPIGARRENA.- Eskaerak aurkeztea eta epeak

Eskaerak Audioko Udaletxeko Idazkaritza Nagusian (Herriko plaza, z/g 01400 LAUDIO) aurkeztu beharko dira. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehazten den moduan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak aurkezteko epeak deialdi hau ALHAOn argitaratu eta ondoko egunean hasiko dira eta ondoko egunetan amaituko da, ikastaroaren motaren arabera:

- 2010eko uztailaren 16 egunean, 2009ko irailaren 30etik eta 2010eko ekainaren 30eko tartean egindako ikasketetako.

- 2010eko uztailaren 16 egunean, 2010eko urtarriletik ekainera bitarteko aitita-amamentzako ikastarokoetarako.

- 2010eko urriaren 15 egunean, 2009ko uztail, abuztu eta iraileko udako ikastaroetarako.

En el caso de que alguno de los cursos no fuese cubierto en su integridad por los plazos más arriba referidos, le será concedida una ayuda porcentual en función de los días naturales incluidos en dicho período. En cualquier caso, para poder recibir la subvención correspondiente al período excluido podrá hacerse uso de la convocatoria de ayudas posterior a ésta, si la hubiese.

b) Estar empadronado en el municipio de Audio / Llodio desde al menos un período no interrumpido de tres meses antes de la fecha de inicio del curso a subvencionar.

c) Haber asistido como mínimo al 85 por ciento de las horas lectivas del curso. Para ello, sólo se admitirá el certificado emitido por el director del euskaltegi en donde se realice el curso.

d) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el Ayuntamiento de Llodio, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

e) Acreditar que con anterioridad a presentar la propuesta de resolución, se halla al corriente de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral y Seguridad Social.

f) Acreditar estar al corriente de pagos con las arcas municipales del Ayuntamiento de Audio / Llodio.

g) Informar al Ayuntamiento sobre cualquiera otra subvención recibida o solicitada para el mismo fin. En cualquier caso, el conjunto de las ayudas recibidas en ningún caso podrán superar el importe del gasto subvencionable.

h) Conservar los documentos justificativos de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

SEXTA.- Documentación a presentar

Será necesaria la presentación de la siguiente documentación:

1. Solicitud en impreso normalizado, con todos los datos solicitados.

2. Justificante original del pago de la matrícula del curso.

3. Certificado del director del euskaltegi, recogiendo los datos del alumno/a, curso y asistencia.

4. Declaración jurada sobre solicitudes de ayudas a otros organismos públicos o privados para el mismo objeto, así como comunicación obligatoria a este Ayuntamiento de Llodio tan pronto como se conozca la obtención o no de las mismas, a efectos, en su caso, de reajuste de la subvención.

5. Declaración jurada de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario, señaladas en los apartados 2 y 3 del art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

6. Fotocopia del Documento Nacional de Identidad del solicitante.

Se dispensará la presentación de otros documentos en poder de la Administración, siempre y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento y se indique la fecha y órgano o dependencia en que fueron presentados, en base al artículo 23 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones. Se exceptúan los documentos sometidos a caducidad, tales como estar al corriente de obligaciones tributarias, etc.

SÉPTIMA.- Presentación de las solicitudes y plazos

Las solicitudes serán presentadas en la Secretaría General del Ayuntamiento (Herriko plaza, s/n 01400 LAUDIO/LLODIO) o en las formas especificadas en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los plazos para presentación de solicitudes comenzará a partir del día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el BOTHA y, en función de curso, finalizará:

- el día 16 de julio de 2010 para cursos del período entre el 30 de septiembre de 2009 y 30 de junio de 2010.

- el día 16 de julio de 2010 para cursos específicos para abuelos y abuelas, entre enero y junio de 2010.

- el día 15 de octubre para cursos de verano en julio, agosto y septiembre de 2010.

Aurkeztutako dokumentazioan hutsune edo okerrik balego, eskaera aurkezten denetik hasita hamar eguneko epea emango da zuzentzeko.

Zuzenketetarako emandako epe horretan konpontzen ez bada, eskaera artxibatu egingo da eta balio administratiborik gabe geratuko da.

#### ZORTZIGARRENA.- Balorazio irizpideak

Deialdi honetako bosgarren atalean adierazten diren betekizun guztiekin bat etorritz gero, beka eskuratzeko eskubidea izango da, betiere aurrekontu nahikorik egotearen baldintzapean.

BEDERATZIGARRENA.- Azterketa, erabakia eta eskumeneko organoak

Eskaerak etorri ahala aztertu eta aurkezteko epea amaitu eta berehala erabakiko dira, beti ere, kontuan izanda ikastaro mota bakoitzak berezko epe eta diru-kopuruak dituela baita berariazko erabakia ere.

Laugarren oinarrian jaso bezala, multzo horretako batean diru nahikorik ez balego, beken kopuruan modu proportzionalean urrituko dira aurreikusitako kopurura egokitu arte.

Behin arestian azaldutako guztia bete ondoren, eta oinarri hauetan jasota dauden irizpideak eta betekizunak aintzakotzat hartuta, txosten bat prestatuko da, erabaki proposamen gisakoa. Txosten horrek Euskara Arloko Zinegotzi ordezkari eta eskuordearen oniritzia izango du.

Gerora, Arloko Zinegotziak erabaki proposamena luzatuko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, berau baita behin-betiko erabakia hartzeko gaitasuna duena.

Premia handiko arrazoi batengatik, Alkatetzaren Dekretuaz erabakiko da. Horrelako kasurik jazoko balitz, erabakiaren berri emango litzaioke organo horri hurrengo bilkuran.

Erabakiak jasota izango ditu onuradunen izen-deiturak eta dagoen diru-kopurua. Halaber, erabakiak laguntzak ezeztatu diren kasuak ere bilduko ditu hala nola ezeztapen-erabaki hori hartzeko zergatiak.

Edozein izanda kasua, hartutako erabakiaren kontra egin ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, azaroaren 26koan eta aurrekoaren egokitzapenerako 4/99 Legean, urtarrilaren 13koan, adierazitako moduetan.

Udalak, hala baleritzo, aurkeztutako dokumentazio aztertzeko eta baloratzeko bestelako datu eta argibideak eska litzake. Datu osagarri horiek hamar eguneko epean eman beharko dira, bestela espedientea artxibatu eta balio gabetuko da.

Eskatzaileek egindako erabakiaren aurkako inpugnazioak Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko ditu.

#### HAMARGARRENA.- Jakinarazpena eta ordaintzeko era

Behin Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hartuta, horren berri jakinaraziko zaie eskaera egin duten guztiei, gehienik ere, hamar eguneko epean. Erabakiaren jakinarazpenean gutxienez izena, jasoko duen diru-kopurua eta ordaintzako bideratzeko eskatzaileak emandako banku-kontua jasoko dira. Eskatutako laguntza ezeztatzen den kasuak ere jakinaraziko dira, erabaki horren arrazoiak emanez.

Diru-laguntza ematearen erabakiarekin amaiera emango zaio ibilbide administratiboari.

Administrazioaren isiltasuna dela-eta, gehieneko epea gaindituta, interesdunari ez bazaio erabakiaren berri eman, diru-laguntza ez zaioa onartu ulertu beharko da.

Deialdi honen eta honen bitartez eratorritako jardueren kontra egiteko aukera dago, beti ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, azaroaren 26koan eta aurrekoaren egokitzapenerako 4/99 Legean, urtarrilaren 13koan, adierazitakoari jarraikiz.

#### HAMAIGARRENA.- Diru-laguntzen mugak

Deialdi honen edo bestelakoen bitartez hartutako laguntzen batuketak ezingo du, inolaz ere, onuradunak egindako ikastaroaren gastu lagungarriaren kopurua gainditu.

Behin ezagututa beste erakunde batzuk jarduera berari esleitutako laguntzak, Euskara Arloak onartutako diru-laguntza berriro azter dezake, gain-finantzaketa kasuak ekiditeko.

Si hubiese sido detectada alguna irregularidad o deficiencia en la documentación presentada se dispondrá de un plazo de diez días, a partir de su presentación, para subsanarlo.

Si agotado dicho plazo la solicitud no ha sido corregida, pasará a ser archivada y quedará sin valor administrativo.

#### OCTAVA.- Criterios de valoración

El cumplimiento de los requisitos de la base quinta de esta convocatoria implica la concesión de la beca correspondiente, aunque siempre sujeta a la disponibilidad presupuestaria.

#### NOVENA.- Estudio, resolución y órganos competentes

Las solicitudes serán estudiadas en conjunto y resueltas una vez finalizado su plazo de presentación, teniendo en cuenta que cada grupo de cursos tiene sus plazos, disposición presupuestaria y resolución específicos.

Tal y como se recoge en la base cuarta, si en alguno de los conjuntos de resolución no hubiese dinero suficiente, las cantidades serían prorrateadas hasta lograr su ajuste con el gasto previsto.

Una vez cumplido lo anterior y teniendo en cuenta los criterios y requisitos recogidos en las presentes bases, se procederá a realizar un informe técnico con las mismas y que habrá de contar con la aprobación de la Concejal Delegada Adjunta del Área de Euskara.

Corresponderá la resolución definitiva a la Junta Local de Gobierno que fallará la propuesta de acuerdo del Área a instancias de la Concejal de la misma.

Podrá resolverse mediante Decreto de Alcaldía en aquellos casos de necesidad inmediata. De darse dicho caso, el acuerdo de Alcaldía deberá de ser comunicado a dicho órgano en la sesión inmediatamente posterior al acuerdo.

El acuerdo recogerá la relación de los beneficiarios y los correspondientes importes a recibir. También incluirá los casos en que ha sido denegada la ayuda y la motivación de dicho acuerdo.

Sea cual fuere la resolución ésta podrá ser impugnada en los casos y en la forma establecidas por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y Ley 4/99, de 13 de enero, de modificación de la anterior.

Si se estimara oportuno, el Ayuntamiento podrá recabar datos o aclaraciones sobre las documentaciones presentadas para completar su estudio y valoración, que de no ser entregados en el plazo de diez días podrán dar lugar al archivo del expediente.

La resolución de las posibles impugnaciones por parte de los solicitantes corresponderá a la Junta de Gobierno Local.

#### DÉCIMA.- Notificación de la resolución y forma de pago

Aprobada la resolución por la Junta de Gobierno Local, se notificará la misma a los solicitantes de las ayudas en un plazo máximo de diez días. En dicha notificación se recogerá al menos el nombre del beneficiario, la cantidad a percibir y el número de cuenta bancaria facilitado por el mismo y en el que se le realizará el abono. También se notificarán las denegaciones de ayuda y el porqué de las mismas.

La resolución de la concesión de la subvención pondrá fin a la vía administrativa.

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legítima a los interesados para entender desestimada la solicitud de la concesión por silencio administrativo.

La presente convocatoria, y cuantos actos administrativos se deriven de ella, podrán ser impugnados en los casos y en la forma establecidos por la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Común y Ley 4/99, de modificación de la anterior.

#### UNDÉCIMA.- Límite de la subvención

El importe total de las subvenciones a través de ésta u otras convocatorias, en ningún caso podrá superar el coste del curso realizado por el beneficiario.

El Área de Euskera podrá revisar subvención aprobada una vez conocida la resolución de ayudas de otras entidades, impidiendo cualquier tipo de sobrefinanciación.

**HAMABIGARRENA.-** Kontrola

Diru-laguntza ematen duen organoak beharrezkotzat jotzen dituen administrazio kontrolak eta ikuskaritzak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazio datuak egiazkoak diren edo diru-laguntza jaso ahal izateko jarritako eginbeharrak betetzen dituen egiaztatzeko.

Onuradunak, balizko ikuskaritzan laguntza eman beharko du eta eskatutakoak lortzen erraztasunak emango ditu.

**HAMAHIRUGARRENA.-** Laguntzaren galera

Beherago zehazten diren baldintzetako bat beteko ez balitz, onuradunak diru-laguntzarako eskubidea galduko luke. Hala izanez gero, Euskara Arloak berak jakinaraziko lioke hartutako diru-laguntza itzultzeko beharra. Honi, berandutzako interesak gehitu litzaizkioke, beka ordaintzen den egunetik hasita. Jasotako diru-laguntza itzultzeko espedientea Euskara Arloko zinegotzi ordezkatzailerak eta eskuordeak egindako proposamenaren bitartez ipiniko da abian eta Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du.

Honako hauek dira jasotako laguntza galtzea eragin dezaketen kasuak:

a) Eskeraan edo atxikitako informazioan aurkeztutako datuetako bat faltsutu denean.

b) Bekaren diru-kopurua, bai bakarka bai beste erakunde publiko zein pribatuek emandako laguntzekin batera, onuradunak aurkeztutako gastu lagungarria gainditzen denean.

c) Nahiz eta Udalak onartuta izan laguntzen behin-betiko kitapena, beste erakunde pribatu zein publikoek emandako beka Udalari ahal denik eta azkarren jakinarazten ez direnean.

d) Oro har, oinarri hauen bitartez onuradunei ezartzen zaizkien betekizunak betetzen ez direnean.

**HAMALAU GARRENA.-** Arau-hauste eta zigorrak

Oinarri arautzaile hauetan jasotako betekizunen bat hausteak, emandako laguntza galtzeaz gain, arau-hausteen erregimenean sartzea eragingo du. Horrek azaroaren 17ko Diru-laguntzetarako 38/2003 Lege Orokorraren V. Tituluan jasotako zigor administratiboak ondorioztatuko ditu.

**HAMABOSGARRENA.-** Garapena, interpretazioa eta zabalkundea

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak izango da deialdi hau garatzeko neurri egokiak onartuko dituena.

Halaber, Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak argituko ditu deialdi honetatik sor daitezkeen interpretazio zalantzak.

Deialdi hau ALHAOn, Udaletxeko iragarkien taulan, udal webgunean ([www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net)) eta ZUIN udal argibide-orian haren berri argitaratuko da, ahal denik eta zabalkunderik handiena ematen saiatuz.

Deialdi eta oinarri hauek indarrean sartuko dira, behin testua bere osotasunean ALHAOn argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 62.5 atalean zehazten den hamabost eguneko epea igarota.

**DONEMILIAGA**

2343

**Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, 2010ekoa, ordaintzeko epea irekitzea.**

Jendeari jakinarazten zaio 2010eko apirilaren 15etik maiatzaren 15era bitarteko lanegunetan (borondatezko epea), biak barne, ordaindu ahal izango dela Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, 2010. urteari dagokiona.

Zerga hori ordaindu behar dutenek bulego orduetan egin ahal izango dute ordainketa udaleko diruzaintzan aipatutako epean.

Halaber, zergadunek banku edo kutxetan helbideratu ahal izango dute ordainketa.

Aipatutako epea bukatutakoan (2010eko maiatzaren 16tik aurrera), betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte aldiko errekarquak (premiamentu errekarqu murriztuak zein premiamentu errekarqu

**DUODÉCIMA.-** Control

El órgano concedente podrá realizar los controles administrativos e inspecciones que considere oportunos a fin de comprobar la veracidad de los datos consignados en la documentación presentada, así como el cumplimiento de los requisitos para la percepción de la ayuda.

El beneficiario tendrá la obligación de colaborar en dicha inspección, proporcionando los datos requeridos.

**DECIMOTERCERA.-** Pérdida de la subvención

En el supuesto de que los beneficiarios de las becas incumplieran cualquiera de las condiciones que más abajo se detallan, la propia Área de Euskara propondrá la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, más el interés de demora desde el momento del pago de la subvención, mediante transferencia a la cuenta del Ayuntamiento de Llodio. Dicha propuesta de reintegro se incoará a través de la Concejalía Delegada Adjunta de la misma, y a la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento para su aprobación.

Los supuestos que incoarán la apertura expediente de pérdida de subvención son:

a) El falseamiento de datos formulados en la solicitud o en la documentación aportada.

b) Que el importe de la beca, aisladamente o en concurrencia con otras ayudas públicas o privadas, supere el coste de la actividad subvencionada a desarrollar por el beneficiario.

c) La no comunicación al Ayuntamiento de Llodio la concesión de otras subvenciones públicas o privadas, aunque ya se haya aprobado por el Ayuntamiento de Llodio la liquidación oportuna.

d) Y, en general, el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes bases.

**DECIMOCUARTA.-** Infracciones y correspondientes sanciones

El incumplimiento de cualquiera de los requisitos establecidos en estas bases supondrá, además de la pérdida de la ayuda concedida, la incursión en el régimen de infracciones y sus correspondientes sanciones administrativas expuestas en el Título V de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**DECIMOQUINTA.-** Desarrollo, interpretación y difusión

La Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento dictará las resoluciones oportunas para el desarrollo de la presente convocatoria.

Cualquier posible duda de interpretación de estas bases será resuelta por la Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento.

Esta convocatoria será íntegramente publicada en el BOTHA así como en la página web ([www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net)) de este Ayuntamiento, dándose noticia en la hoja informativa ZUIN buscando en todo momento la mayor difusión posible.

Las presentes convocatoria y bases entrarán en vigor una vez publicado íntegramente su texto en el BOTHA y transcurrido el plazo de quince días establecido en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

**SAN MILLÁN**

2343

**Apertura del periodo cobratorio Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica 2010.**

Se pone en conocimiento público que durante los días hábiles comprendidos entre el día 15 de abril y 15 de mayo de 2010, ambos inclusive, estarán puestos al cobro, en período voluntario, los recibos del Impuesto Municipal sobre Vehículos de Tracción Mecánica, correspondientes al año 2010.

Los contribuyentes afectados por dicho impuesto podrán realizar los pagos de sus deudas tributarias en Depositaria Municipal, en horas de oficina, durante dicho plazo.

Asimismo, se recuerda que los contribuyentes podrán hacer uso de la domiciliación del pago a través de entidades bancarias o cajas de ahorro.

Transcurrido el plazo indicado (a partir del 16 de mayo de 2010) se iniciará el periodo ejecutivo, devengándose los recargos ejecutivos de apremio reducido y de apremio ordinario, en los